

DEMOKRAZIA



© European Union 2017 – Source: EP

Bost urtean behin, Batasuneko herritarrek Europako Parlamentuan izango dituzten ordezkariek hautatzen dituzte, zuzenean. Hurrengo hauteskundeak 2024an izango dira.



EUROPE@SCHOOL

DEMOKRAZIA



© European Union 2014 – Source: EP

Batasuneko beste herrialde batean bizi diren herritarrek eskubidea daukate udal-hauteskundeetan eta Europako hauteskundeetan bizi diren lekuan bozkatzeko edo hautatuak izateko. Adibidez, Berlinen bizi den greziar bat hiriko alkate izateko hautatua izan daiteke.



EUROPE@SCHOOL

DEMOKRAZIA



Europako herritar-ekimena: gutxienez zazpi herrialdetako milioi bat herritarrek eskaera bat sinatzen badute, Europar Batzordeari legegintza-proposamen bat aurkezteko eska diezaiokete.



EUROPE@SCHOOL

DEMOKRAZIA



© European Union 2011 – Source: EP

Europako Parlamentuak hauteskunde-behaketako misioetan parte hartzen du Batasunetik kanpoko herrialdeetan hauteskunde askeak eta inpartzialak sustatzeko, adibidez, Egipton eta Ukrainan.



EUROPE@SCHOOL

ASKATASUNA



Herritar europarrek Batasun guztian askatasunez bidaiatu dezakete.



EUROPE@SCHOOL

ASKATASUNA



Enpresek ez daukate eskubiderik datu pertsonalak biltzeko, baldintza zorrotzetan izan ezik. Pribatutasunerako eta datuen babeserako gure eskubidea da.



EUROPE@SCHOOL

ASKATASUNA



Batasuneko herritarrek edozein estatu kidetan lan egiteko askatasuna daukate eta horretarako ez dute lan-baimenik eduki behar.



EUROPE@SCHOOL

ASKATASUNA



© European Union 2011 – Source: EP

Batasunean zure iritzia adieraz dezakezu espetxeratuko zaituzten beldurrik gabe. Gure adierazpen-askatasuna da. Beste pertsona edo pertsona-talde batzuei kaltea egitera daraman gorrotoa piztea bakarrik debekatzen da.



EUROPE@SCHOOL

SOLIDARITATEA



Aberastasun gutxieneko Batasuneko eskualdeek laguntza ekonomiko gehigarria jasotzen dute.



EUROPE@SCHOOL

SOLIDARITATEA



© Antonio Gravante

Batasuneko estatu kideek adostu dute elkarri lagunduko diotela haietako batek eraso terrorista bat pairatzen badu edo katastrofe natural baten edo gizakiek eragindako katastrofe baten biktima bada. Klausula hori 2015eko Parisko erasoen ostean erabili zen.

EUROPE@SCHOOL



SOLIDARITATEA



Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsak lan berria aurkitzen edo lanbide-heziketa jasotzen laguntzen die pertsoneri globalizazioaren ondorioz lana galdu badute, adibidez, enpresa soldata baxuak dituen herrialde batera lekualdatu bada.

EUROPE@SCHOOL



SOLIDARITATEA



© European Union, 2014 - Source: EC

Batasuna eta haren estatu kideak elkarrekin dira garapenerako laguntzaren munduko emaile nagusiak.

EUROPE@SCHOOL



BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOARIK EZA



Beste estatu kide batean ikasten duten Batasuneko herritarrek herri horretako ikasleen tasa akademiko berak ordaintzen dituzte. Adibidez, Parisen ikasten duen ikasle italiar batek herritar frantsesek ordaintzen dituzten tasa berberak ordaintzen ditu.

EUROPE@SCHOOL



BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOARIK EZA



Haur bat jaiotzen denean edo adoptatzen dutenean, bai amak bai aitak gutxienez lau hilabeteko baimena izateko eskubidea daukate hura zaintzeko.

EUROPE@SCHOOL



BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOARIK EZA



Batasunean herritarrak babestuta daude sexu-orientazioa dela-eta lana uka ez diezaieten eta kaleratu ez ditzaten.

EUROPE@SCHOOL



BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOARIK EZA



© European Union 2020 - Source: EP

Urtero, Europako Parlamentuak Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoaren 8a) nabarmentzen eta ospatzen du genero-berdintasuna sustatzeko.

EUROPE@SCHOOL



ZUZENBIDE-ESTATUA ETA JUSTIZIA



© European Union 2017 - Source: EP

Biktima eta susmagarri guztiak epaiketa inpartzialerako eskubidea daukate. Susmagarri guztiak errugabeak dira auzitegi batean errudunak direla frogatzen den arte.

EUROPE@SCHOOL



ZUZENBIDE-ESTATUA ETA JUSTIZIA



Delitu edo istripu baten biktimei eta susmagarriei ulertzen duten hizkuntza batean eman behar zaie prozedura judizialei buruzko informazioa. Zerbitzu hori epaiketa egiten den estatu kideak ordaintzen du.

EUROPE@SCHOOL



ZUZENBIDE-ESTATUA ETA JUSTIZIA



Zuzenbide-estatua errespetatzen ez duten Batasuneko estatu kideek ohartarazpena edo zehapena jaso dezakete, edo baliteke Batasunean erabakiak hartzeko ahalmena aldi baterako kentzea.

EUROPE@SCHOOL



ZUZENBIDE-ESTATUA ETA JUSTIZIA



Batasuneko estatu kideek Batasuneko araudiak errespetatu behar dituzte. Bestela, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epaitu ditzake.

EUROPE@SCHOOL



GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA



Europako Parlamentuak Sajarov saria ematen die giza eskubideen defentsarako ekarpen aparta egiten duten mundu osoko pertsoneri.

EUROPE@SCHOOL



GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA



Batasunak giza eskubideetarako ordezkari berezia dauka. Haren eginkizuna Batasuneko giza eskubideei buruzko politika atzerrian hobetzea da.

EUROPE@SCHOOL



GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA



Hilean behin, Europako Parlamentuak mundu osoan egindako giza eskubideen urraketa nabarmenak eztabaidatzen ditu. Modu horretan, giza eskubideen abusuei buruzko arreta erakartzen du.

EUROPE@SCHOOL



GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA



Batasuneko estatu kide guztiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena sinatu eta errespetatu behar dute.

EUROPE@SCHOOL



TOLERANTZIA ETA PLURALISMOA



Zure erlijioa edo sinesmenak aitortzeko edo aldatzeko askea zara.

EUROPE@SCHOOL



TOLERANTZIA ETA PLURALISMOA



Batasunak proiektu bat babestu zuen zein kazetari erromaniak eta erromaniak ez zirenek etnia horretako komunitateei buruzko 25 film labur egin zituzten. Proiektuaren helburua zen biztanleria erromaniari buruzko informazioa ematen duten komunikabideetan pertzepzio publikoari eragiten dioten estereotipoak hiltzea.

EUROPE@SCHOOL



TOLERANTZIA ETA PLURALISMOA



Batasuneko estatu kideek telebista-programetan arrazan, sexuan, erlijioan edo nazionalitatean oinarritutako gorrotoa piztearen aurka egin behar dute.

EUROPE@SCHOOL



TOLERANTZIA ETA PLURALISMOA



Komunikabideek gizartea alderdi guztietan aurkeztu behar dute. Batasuneko Media Pluralism Monitor delakoak hori egiten dela egiaztatzen du.



EUROPE@SCHOOL

GIZA DUINTASUNAREN ERRESKETUA



Heriotza-zigorra Batasuneko herrialde guztietan debekatuta dago.



EUROPE@SCHOOL

GIZA DUINTASUNAREN ERRESKETUA



Tortura Batasuneko herrialde guztietan debekatuta dago.



EUROPE@SCHOOL

GIZA DUINTASUNAREN ERRESKETUA



Batasunean asiloa eskatzen duten guztiek ostaturia, elikagaiak eta osasun-zerbitzuak jasotzeko eskubidea daukate haien asilo-eskaera ebatzteke dagoen bitartean.



EUROPE@SCHOOL

GIZA DUINTASUNAREN ERRESKETUA



Haurren lana, esklabotza eta lan-esplotazioa debekatuta daude Batasunean.



EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasunean zure iritzia adierazteko askatasuna daukazu, baina gorrotoa piztea ez dago baimenduta.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko beste herrialde batean lan egiteko, ezinbestekoa da lan-baimena edukitzea.

GEZURRA

Batasuneko herritarrek edozein herrialde kidetan lan egiteko askatasuna daukate eta horretarako ez dute lan-baimenik eduki behar.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Enpresek gure datuak gure baimenik gabe bil ditzakete.

GEZURRA

Enpresek ez daukate eskubiderik datu pertsonalak biltzeko, baldintza zorrotzetan izan ezik.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Herritar europarrek Batasun guztian askatasunez bidaiatu dezakete.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Ez dago Europar Batasuneko erakundeetarako zuzeneko hauteskunderik.

GEZURRA

1979tik, herritar europarrek zuzenean hautatu dute Europako Parlamentu berri bat bost urtean behin.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Herritar europarrek ezin dute legegintzako egintza berririk proposatu EBko eskalan.

GEZURRA

Europako herritar-ekimenaren bidez, herritar europarrek Europako Batzordeari lege berriak egiteko eska diezaioke.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko herritarra bazara eta horko beste herrialde batean bizi bazara, eskubidea daukazu bizi zaren lekuan Europako Parlamenturako bozkatzeko edo hautatua izateko.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Europako Parlamentuak Batasunetik kanpoko herrialdeetan hauteskundeak behatzen ditu hauteskunde askeak eta inpartzialak sustatzeko.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Europar Batasunean ez dago gurasotasun-baimenari buruzko araurik.

GEZURRA

EBk gutxienez lau hilabeteko gurasotasun-baimena bermatzen dio aita edo ama bakoitzari.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasunean herritarrek babestuta daude sexu-orientazioa dela-eta lana uka ez diezaieten eta kaleratu ez ditzaten.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Delitu edo istripu baten biktimei ulertzen duten hizkuntza batean eman behar zaie prozedura judizialari buruzko informazioa. Susmagarriek ez daukate eskubide hori.

GEZURRA

Bai biktimek bai susmagarriek daukate informazioa ulertzen duten hizkuntza batean jasotzeko eskubidea.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko herritar batek horko beste herrialde batean ikasten badu, ikasle nazional batek baino % 10 gehiago ordaintzen du.

GEZURRA

Batasuneko herritarrek ikasle nazionalek ordaintzen dituzten tasa akademiko berak ordaintzen dituzte.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Estatu kide batek Batasuneko funtsezko eskubideak urratzen baditu, Batasunetik kanporatu egingo dute.

GEZURRA

Herrialdeak ohartarazpena edo zehapena jaso dezake, edo baliteke Batasunean erabakiak hartzeko ahalmena aldi baterako kentzea.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Biktima eta susmagarri guztiek epaiketa inpartzialerako eskubidea daukate.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuna eta haren estatu kideak garapenerako laguntzaren munduko emaile nagusietako bigarrenak dira, Ameriketako Estatu Batuen ostean.

GEZURRA

Elkarrekin, garapenerako laguntzaren munduko emaile nagusiak dira.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Aberastasun gutxienerako Batasuneko eskualdeek laguntza ekonomiko gehigarria jasotzen dute.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko estatu kideetako batean eraso terrorista bat egiten bada, beste kideek ukitutako herrialdeari lagunduko diote.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

EBko Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsak egoitza gutxienez EBko estatu kideetako batean daukaten enpresei laguntzen die.

GEZURRA

Funts horrek lan berria aurkitzen laguntzen die pertsoneri globalizazioaren ondorioz lehengo lana galdu badute, adibidez, enpresa soldata baxuak dituen herrialde batera lekualdatu bada.

EGIA
GEZURRA

Media Pluralism Monitor delakoak ziurtatzen du Batasuneko komunikabideek gizartea alderdi guztietan erakusten dutela.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

EBn ezin da erlijioa aldatu.

GEZURRA

Zure erlijioa edo sinesmenak aitortu edo alda ditzakezu

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Telebista-programetan gorrotoa piztea onartu egiten da Batasuneko zenbait herrialdetan.

GEZURRA

Arrazan, sexuan, erlijioan edo nazionalitatean oinarritutako gorrotoa piztearen aurka egin behar da Batasuneko estatu kide guztietako telebista-programetan.

EGIA
GEZURRA

Batasunean asiloa eskatzen duten guztiak ostatua, elikagaiak eta osasun-zerbitzuak jasotzeko eskubidea daukate haien asilo-prozedurak iraun bitartean.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko zenbait herrialdetan oraindik ere heriotza-zigorra onartzen da.

GEZURRA

Heriotza-zigorra Batasuneko herrialde guztietan debekatuta dago.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Estatu kide batek Batasuneko legeak urratzen baditu, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak kondenatu dezake.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Tortura Batasuneko herrialde guztietan debekatuta dago.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Haurren lana ez da desiragarria, baina Batasuneko zenbait herrialdetan oraindik ere onartzen da.

GEZURRA

Haurren lana Batasuneko estatu kide guztietan debekatuta dago.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasuneko estatu kide guztiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena sinatuta eduki behar dute.

EGIA

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Europako Parlamentuak bakarrik Europar Batasunean gertatzen diren giza eskubideen urraketek buruzko eztabaidak izaten ditu.

GEZURRA

Europako Parlamentuak mundu osoan gertatzen diren giza eskubideen urraketak eztabaidatzen ditu.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Sajarov saria Europako lankidetzaren sustatzen duten pertsonari ematen zaie.

GEZURRA

Sajarov saria giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonari ematen zaie.

EUROPE@SCHOOL

EGIA
GEZURRA

Batasunak giza eskubideetarako ordezkari berezia dauka

EGIA

EUROPE@SCHOOL

«BALIO-MAPA PERTSONALA»

Balioak	Nire ideiak?	Batasuna- rentzako lehentasuna?
Demokrazia 	Herriaren gobernurako sistema, eskuarki ordezkari hautatuen bidezkoa.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Askatasuna 	Nahi dugun moduan jarduteko, hitz egiteko edo pentsatzeko askeak gara. Askatasuna espetxeratuta edo esklabo bihurtuta ez egotea ere bada.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Solidaritatea 	Denok gaude elkarrekin erlazionatuta eta denok gara elkarren erantzuleak. Solidaritatea talde baten barruan elkar babestea da.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Berdintasuna 	Denok gara berdinak estatusari, eskubideei (legearen aurrean) eta aukerei dagokienez.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Justizia eta zuzenbide- estatua 	Pertsona eta erakunde guztiak modu inpartzialean aplikatzen eta betearazten diren lege argi eta bidezkoen menpe daude eta lege horiek betetzeko erantzukizuna daukate.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Giza eskubideen errespetua 	Giza eskubideak munduko pertsona guztien oinarrizko eskubide eta askatasunak dira. Beti errespetatu eta babestu behar dira.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Tolerantzia eta pluralismoa 	Gizartean askotariko iritziak eta portaerak egotea onartzen eta errespetatzen dugu, gustatzen ez bazaizkigu edo haiekin ados ez bagaude ere.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS
Giza duintasunaren errespetua 	Pertsonen osotasun fisiko eta psikologikoa beti errespetatu behar da.	ADOS NAGO / EZ NAGO ADOS